Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Luziano Artetxe Amuriza

Artea, Bizkaia
(1923-2022)



Aurkibidea

Biografia



Arteako Iturria baserrian sortu zen bost neba-arrebako familia batean. Aita bertakoa zuen eta ama Igorreko Iturtzakoa. Neba-arrebatan zaharrena zenez eta ama umetan hil zitzaienez, gerrara arte Igorreko eskolara joan zen bertan bizi izan baitzen izeko batenean. Etxera bueltatu eta Zeberiora joan ziren ebakuatuta. Baserriko beharrak (gari lanak, ilargiaren eragina...), herriko semimario eta bainuetxeko kontuak, Franco garaiko errepresioa, abestiak... izan zituen berbagai Firestoneneko behargin ohi honek 90 urte bete berri zituela.

Zintak

ATE-008

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bilbao Ortuondo, Johana - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2013-03-01
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

ATE-009

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bilbao Ortuondo, Johana - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2013-03-01
- **Iraupena**: 47 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Jaioberriei izena zelan ipintzen zitzaien

- **Erref**: ATE-008/002
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:02:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Garai hartan aitita-amamen izena edo eguneko santuarena jartzen zen.

Transkripzioa
- Orduko denboratan, nik pentsetan dot ba ze edo aititen edo amaman ixena edo egunena, apur bet hori eroaten zan, e? Ta nik be, ba, aitebitxin ixena. Nire aitite be Luziano ixen zan. Igorren bizi zan.
- Ta harena. Orduan, amak eta aitek ez eben elejiduten umean izena?
- Bueno, amak eta aitak be igual batzuk eukiko eben... ez? Baia normalean egunena edo aitebitxi edo amabitxirena. Hori [zen]... gehienbaten holan izeten zan.

2. Gari-jotea zela egiten zen

- **Erref**: ATE-008/004
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:05:43. **Bukatu**: 00:09:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Iturrian aitari laguntzen ibiltzen zen; artoa jorratzen, gari-ebaten... Garia zela jotzen zuten kontatzen du. Lan gogorrak izaten ziren baina jatekoa ere bereziagoa. Garia bero handiarekin hobeto garantzen dela dio. Azalpena ematen du. Andrazkoak gehienetan sorotik garia ekartzen ibiltzen ziren. Uztailaren bukaerarako garia jota egoten zen. Erein azaroan egiten zuten.

3. Hilabeteen izenak euskalkian

- **Erref**: ATE-008/005
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:09:38. **Bukatu**: 00:10:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Hilabeteak izendatzen ditu bere euskalkian.

4. Garia ereitetik ehotzeraino

- **Erref**: ATE-008/006
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:10:52. **Bukatu**: 00:14:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia ereiteko, laiarekin lantzen zen lurra. Azaroan ereiten zen eta uztailaren bukaeran jo. Igitaiarekin mozten zen. Geroago makina ekarri zuten

eta urte batzuez erabili zuten. Garia errotan eho eta zahia kendu egiten zitzaion. Zahia, tremesa eta irina bereizten ziren.</p>

5. Ogia egiteko prozesua

- **Erref**: ATE-008/007
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:14:21. **Bukatu**: 00:15:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Irinarekin labeko sua egiten zen, gehienetan larunbatetan. Ogiaren orea nola egiten zen kontatzen du.

6. Ogia eta taloa txandaka

- **Erref**: ATE-008/008
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:15:56. **Bukatu**: 00:17:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Ogi nahikorik ez eta artoarekin lapikokoa jaten zuten. Ogia urdaiarekin jaten zuten. Orduan ez zen jatekorik geratzen. Etxejabe handiek baino biharginek diru gehiago izaten zuten eta hobeto bizi ziren.

7. Soroan belarra galtzeko modua

- **Erref**: ATE-008/009
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:17:53. **Bukatu**: 00:22:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Martxoaren bukaeran behiekin area pasatzen zuten, belarra kentzeko. Pare bat egunera berriz pasatzen zen eta berriz ere bai, belarra galtzeko. Artorik ereiten ez delako, ez dauka penarik. Berakatz-zopak zela prestatzen zituzten kontatzen du.

8. Artoa errotara eta zurikina behiei

- **Erref**: ATE-008/010
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:22:23. **Bukatu**: 00:23:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Ganbaran artoa gordetzen zen. Artoaren zurikina behiei ematen zioten. Artoa garandu eta bizkarrean eramaten zuten errotara. Etzanda egoteko lekuak izaten zituzten.

9. Zurikinekin lastamarrak egiten ziren

- **Erref**: ATE-008/012
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:26:28. **Bukatu**: 00:27:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:
Zurikinei kirtena kentzen zitzaien eta lastamarrak egiteko erabiltzen ziren. Lastamarrak zela txukuntzen ziren kontatzen du.

10. Guardia Zibilengana salatu zutenekoa

- **Erref**: ATE-008/013
- **Iraupena**: 0:06:32. **Hasi**: 00:27:50. **Bukatu**: 00:34:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Artobizarrak erretzen zituzten. Behin kartzelara sartu zuten eta tabakoa eman zioten, eta hantxe erre zuen lehenengoz. 1971ko irailaren 11an Arteagako jaiak ziren eta bere semeari eta beste bati txistua bota zien zinegotzi batek sorora. Hari kontuak eskatzearren kartzelaratu zuten bi-hiru egunez Guardia Zibilek.

11. Abertzaleen eta karlisten egoitzak

- **Erref**: ATE-008/016
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:37:56. **Bukatu**: 00:40:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Abertzaleek batzokia zuten moduan, karlistek bazuten beraien egoitza. Pelaioak ilaran jarrita zela irtetzen ziren gogoan dauka. Errepublikarrak hirulau lagun izaten ziren herrian. Batzokia non egon zen kontatzen du.

12. Igorreko Emakumeen Batza

- **Erref**: ATE-008/018
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:42:55. **Bukatu**: 00:44:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

Laburpena:
Igorreko Batzokiko Emakumeen Batza. Maria izeneko bat errespetu handikoa zen herritarren artean. Gerra aurretik mitin bat non egin zen kontatzen du.

13. Arteako seminarioa

- **Erref**: ATE-008/019
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:44:26. **Bukatu**: 00:46:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Pelaioak ilaran irtetzen ziren eta instrukzioa ematen zieten seminarioan. Seminarioa non zegoen kontatzen du.

14. Artea edo Gaztelu-Elizabeiti

- **Erref**: ATE-008/020
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:46:15. **Bukatu**: 00:48:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Arteagako herria bi auzok sortu zuten: Gaztelu eta Elizabeitik. Dorretxeak zeuden. Artea izena erabili izan da herria izendatzeko.

15. Zeanuriko seminaristak

- **Erref**: ATE-008/021
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:48:54. **Bukatu**: 00:50:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Zeanurin buru oneko jendea egon izan dela dio. Familia handikoei semeak fraile izateko eramateko eskaintza egiten zieten fraileek. Zeanuritik asko joan omen ziren baina ikasketak egin ostean, fraile ez izatea erabakitzen zuten gehienek.

16. Seminarioan jende asko

- **Erref**: ATE-008/022
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:50:57. **Bukatu**: 00:52:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Seminarioa gerra aurretik zegoen; berak beti ezagutu izan du. Kanpotik etortzen zen jendea eta asko izaten ziren denera.

17. Bainu-etxeari buruzkoak

- **Erref**: ATE-008/023
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:52:00. **Bukatu**: 00:55:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Bainu-etxea orain dagoen bera da eta beti ezagutu izan du. Hotela zein zen kontatzen du. Hezurretako mina zutenak Errioxara joaten ziren. Ura iturburu batetik irtetzen zen. Leku askotan irtetzen dela dio eta usainean nabaritzen dela.

18. Ilbeherako lanak

- **Erref**: ATE-008/025
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 00:56:18. **Bukatu**: 01:00:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Txerria ilbeheran hiltzen zen. Erein ere ilbeheran egiten zuten; porrua eta tipula, esaterako, zildu egiten dira bestela.

19. Txahala hil eta kontserbatzea

- **Erref**: ATE-008/026
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 01:00:15. **Bukatu**: 01:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Txahala hiltzerakoan ez zitzaion hainbeste begiratzen ilargiari. "Zebendikarie" izaten zen behia bi-hiru lagunen artean hil eta zatiak gatzetan gordetzea. Handik zezina ateratzen zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com